

ANTZERKIA. Antzezlanaren emanaldi bi eskainiko ditu aretoak

'Clown' obra umoretsua jasoko du La Fundicionek

Pez en Raya konpainiak 'Pésame mucho' obra ekarriko du Bilbora

E. Ezkerra | **BILBO**

Pésame mucho-k Falafel dea-bruaren erruz gauzatu ezin den maitasun istorio bat kontatzen du. Bere egileek beldurrezko ikuskizun bat dela diote, ezustekoz eta umorez betea. «Beno, beldur handi-handia, agian, ez du emango, baina pixkatxo bat bai», dio Cristina Medinak Pez en rayako kideak. Joan Estrader aktore eta lankidearekin batera, Sevillakoak *clown* teknikari jarraiki osaturiko antzezlan-a aurkeztuko du asteburu honetan —larunbatean eta igandean arratsaldeko zortzi eta erdietan—, Deustuko La Fundicionen. Hau ez da Pez en rayakoek Bilbo bisitatzaren lehen aldia, Europan kritikaren laudorioak jaso dituen *Tápate*-rekin izan baitziren duela bi urte. Oraingoan, orduko arrakasta errepikatuko dutelakoan daude.

Umore garratz eta zuzena

Hamar urte igaro dira Cristina Medinak eta Joan Estraderrek elkar ezagutu zutenetik. Ingalaterran gertatu zen hori, biak Philip Golier ezagunak Londren duen *clown* eskolan ikasten zebiltzan. Behin ikasturtea amaiturik, bakoitza bere herrira itzuli zen, Sevillara Medina eta



EGUNKARIA
Pésame mucho ikuskizunaren irudi bat.

OBRAK

'Clown' teknikari jarraiki, umorez eta ezustekoz beteriko lanak egin ditu Pez en Raya taldeak

Bartzelonara Estrader. Baina handik gutxira beren bideek berriro topo egingo zuten, eta 1997an *Carcoma* antzezlanaren bitartez Pez en raya konpainia jendaurrean aurkeztu zuten. «Gustokoak genituen sormen lanak plazaratzeko helburuarekin sortu genuen taldea. Joane eta biok modu berean ulertzen genuen umorea —Espainian gutxi lantzen den umore mota, hain zuzen—, eta erreferente berdintsuekin mugitzen ginen. Ez genituen ohiko esketxak egin nahi, baizik eta Ingalaterrako komedien

antzeko istorio luzeak landu», azaldu du Medinak.

Carcoma-ren ostean, *Merci y me fui* (1998) obra etorri zen, baina benetako arrakasta bi urte geroago ezagutu zuten, *Tápate*-ren eskutik. Europako jaialdi garrantzitsuenetan parte hartzeko aukera eman ez ezik, antzezlan hark etxekoan onespena lortzen ere lagundu zien. «Egia esateko, gogorra eta zaila da guk lantzen dugun umore mota hemen erakustea. Ez ikusleengatik, antzerkera joatea gus-tuko duenak hor egote hutsarekin disfrutatu egiten baitu. Oztopoak programatzaileek jartzen dituzte, egiten duzuna ezezaguna egiten bazaie, nekez erosiko baitute zure obra».

Ezustekoaren atzetik, lan egiteko orduan ez direla batere konformaerazak diote Pez en rayakoek. «Horregatik ateratzen zaizkigu hain istorio zoro eta ezohikoak», dio Medinak.

LABURREAN

LITERATURA

Marius Carol kazetariaren 'Les seducciones de Julia' eleberriak irabazi du Ramon Llull saria



TONI GARRIGA / EFE
Marius Carol.

Marius Carol kazetariak irabazi du Ramon Llull Kataluniako letretako saria *Les seducciones de Julia* eleberriarengatik. Salvador Dali margolariaren inguruan osatu du istorioa. Emakume batek bere buruzko dokumental bat egiteko enkargua izango du, eta hori egiteko Isidoro Bea eszenografoa elkarriketatzea erabakiko du. Istorioaren hiru hari horiek lotzeko «modu bikaina» saritu dute epaimahaikideek. Olga Xirinacs-ek, berri, Ramon Llull Elebe-

rrigintza Beltzaren saileko lehen saria eskuratu du *No jugueu al cementiri*-rekin. «Harmonia narratiboa eta sinpletasuna» go-raipatu ditu Xirinacs-ek.

ZINEMA

'Z Cars' telesaileko inspektore Satratford Johns hil da, 77 urte zituela

Stratford Johns aktorea hil zen herenegun 77 urte zituela, bihotzeko gaixotasun baten ondorioz. *Z Cars* BBCko telesailean Charlie Barlow inspektorearen rolean egin zen ezagun 60ko hamarkadan, eta pertsonaiak izan zuen arrakastagatik *Softly, Softly, Barlow at larg* eta beste hainbat telesail egin ziren pertsonaia horrekin.

ARGAZKIGINTZA

Nafarroako Argazkilari Profesionalek Elkarteko kideek erakusketa paratu dute Iruñean

Gaurtik martxoaren 2a arte Nafarroako Argazkilari Profesionalek Elkarteko hainbat kideren argazkiak ikus daitezke Iruñeko Udaleko Descalzos karrikako kultur aretoan. Orotara 46 lan eskegi dituzte, argazki dendariak estudioan bertan egiten dituzten argazkiak: bodegoiak, paisaiak, bidaia argazkiak eta moda argazkiak ere topatzen ahal dira erakusketan. Finean, artista bakoitzak argazkigintzaz duen ikuspegia jorratu eta islatu du. 23 argazkilarien bina lan jarri dituzte.

ARTEA

Frantziako museoek autonomia handiagoa izateko lege erreforma aztertzen ari dira

Frantziako museoetako arduradunek gobernuak izan duen kudeaketa kaskarra salatzen dute publiko egin den txosten batean, eta autonomia handiagoa eskatu dute euren jardueran museoek duten krisiari aurre egiteko. Horren eraginez, Frantziako Ministerioa aztertzen ari da museoen legegaren gaineko erreforma, eta aldaketak iragarri ditu.

Bihar



Egunkaria

Liburutegia, literaturarekin harremanetan sartzeko dugun eremu gehiegitan ahantzia

Punk mugimenduak mende laurden

'Van Gogh & Gauguin' erakusketa Amsterdamen, artista handi biren arteko loturaren erakusgarri

Harkaitz Cano, idazle jardunaren arrazoiez

...zure independentzia

